

IRAKASKUNTZA-GIDA 2021/22

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

25076 - Psikometria

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikometriak aldagai psikologikoak neurtzeko behar diren baldintzak eta jarraitu beharreko prozedurak aztertzen ditu. Psikometriak tokia du, psikologian, gizarte-zientzietan eta osasun zientzietan.

Psikometriaren alderdirik ezagunenak testak dira. Testak ebaluazio psikologikoan eta hezkuntza-ebaluazioan lagungarri diren tresnak dira. Testak zenbait baldintza formal bete behar dituzte: a) puntuazioak fidagarriak izan behar dute; b) horien baliagarritasunaren azterketak erabilera bermatu behar du, eta c) puntuazioak eta horiek lortzeko prozedurak estandarizatuta egon behar dute. Baldintza guzti horiek testen erabilera zuzen batekin bakarrik mantendu daitezke.

Irakasgaia lantzeko hartzen dugun ikuspuntua praktikoa eta aplikatua da; Jardun profesionalean psikologoak behar izango dituen kompetentziak garatu nahi dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Helburu orokorrak:

1. Psikologiaren alorrean neurketaren berezitasunaz jabetzea.
2. Neurketa-tresnak sortzeko eta horien ezaugarriak aztertzeko metodoak ezagutzea.
3. Testen oinarri psikometrikoak ezagutzea: Fidagarritasuna, baliagarritasuna eta estandarizazioa.
4. Ebaluazio testuinguru baterako test egokiena aukeratzeko eta hori ebaluatzen jakitea.
5. Txosten psikometriko bat egiteko gai izatea.
6. Testak zuzen erabiltzeko nazio- zein nazioarteko gidalerroak ezagutzea.

Ordenagailu-praktikekin loturiko helburuak:

7. Testekin loturiko informazio psikometrikoa ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta kompetentziak garatzea.
8. Itemen eta testen ezaugarri psikometrikoen buruzko txosten teknikoak egiteko beharrezko gaitasunak garatzea.
9. Testen ezaugarri psikometrikoak aztertzerako jamovi erabiltzen ikastea.

Gela-praktikoekin loturiko helburuak:

10. Testekin loturiko baliabide nagusienak ezagutzea.
11. Testen eskuliburuak ebaluatzeko eta aztertzeko gai izatea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Neurketa psikologian.
2. Neurketa tresnak sortzea.
3. Itemen analisisa.
4. Fidagarritasuna: Definizioa eta hori aztertzeko ereduak.
5. Baliagarritasuna: Bilakaera eta ebidentziak.
6. Puntuazioak interpretatzea: Eraldatzea eta berdintzea.
7. Erronka berriak.

METODOLOGIA

Irakasgaia aplikatua da eta irakaskuntza-modalitateak profesional gaitu bat prestatzera bideratuta daude. Profesional horrek test psikologikoen indarguneak eta ahulguneak ezagutu behar ditu eta txosten psikometriko bat egiteko eta aztertzeko gai izan behar du.

Urtean zehar gutxienez bi proiektu kolaboratibo garatuko dira; horietako bakoitza irakaskuntza-modalitate batekin loturik dago: gela-praktikak eta ordenagailu-praktikak.

- Ordenagailu-praktikekin loturiko proiektua: Galdesorta bati emandako erantzunak jasotzen dituen datu-base baten gaineko txosten psikometrikoa egitea.

- Gela-praktikekin loturiko proiektua: Argitaraturiko test bati buruzko ebaluazio-txostena egitea.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	9		11		6		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	3	13,5		16,5		9		

Legenda: M: Magistrala
GL: Laborategiko p.
TA: Tailerra
S: Mintegia
GO: Ordenagailuko p.
TI: Tailer Ind.
GA: Gelako p.
GCL: P. klinikoak
GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 50
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 50

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

1.- Ohiko ebaluazioa. Ebaluazio jarraitua.

1.1.- Ebaluazioa presentziazkoa denean

Ikasturte-amaieran aukera-anitzeko azterketa egingo da.

Psikometria gainditzeko ebaluazio-atal bakoitzari dagokion langa gainditu beharko da.

1.2.- Ohiko ebaluazioa. Modu ez-presentziazkoan edo urrunetik egindako ebaluazioa

Kasua hau balitz, urtean zehar egin beharreko lanen pisuak zertxobat aldatuko dira :

- Proiektuek eduki teoriko sakonagoa izan beharko dute
- Lan bakoitzaren pisua % 35 izango da
- BCC saioen bitartez lanak defendatu egingo dira. Defentsen pisua %30 da

2.- Ebaluazio ez-jarraitua.

Ikasleak ebaluazio ez-jarraitua aukeratzen duenean azterketa bakarra egingo du ikasturtearen amaieran. Bertan zenbait aukera-anitzeko galderez gain (%70) ikasturtean landutako gai teorikoak edota kasu praktikoak garatu beharko ditu ikasleak (%30;analisi psikometrikoak, interpretazioak...).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohikoaren egitura berdina izango du.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak e-gelan jarriko ditu praktikak egiteko behar den materiale guztia

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Abad, F.J., Olea, J., Ponsoda eta García, C. (2011). Medición en ciencias sociales y de la salud. Madrid. Síntesis.
- Elosua, P. (2003). Sobre la validez de los tests. *Psicothema* 15(2), 315-321.
- Elosua, P. (2005). *Psikometria. Testen eraketa eta erabilpena*. Leioa: EHU
- Elosua, P. (2020). *Psikometria. jamoviren bidezko gida*. Leioa: EHU
- Muñiz, J. (2018): *Psicometría. Pirámide*. Madrid.
- Muñiz, J., y Fonseca-Pedrero, E. (2019). Diez pasos para la construcción de un test, *Psicothema*, 31, 7-16.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Elosua, P. (2010). R gizarte-zientzietarako. Datuen eta Eskalen analisisa Rcommander-ekin: Universidad del País Vasco.
- Elosua, P. (2011). *Introducción al entorno R*. Leioa: UPV.
- Elosua, P. (2011). *Psicometría. Conceptos básicos y aplicaciones prácticas con Rcommander*. Leioa: UPV/EHU.
- Elosua, P. (2019). *Los tests psicológicos en la práctica profesional*. Madrid: Consejo General de la Psicología. Haladyna, T.M. (1999): *Developing and validating multiple-choice test items*. Hillsdale, NJ: Lea
- Hambleton, R.K. (1990): *Item Response Theory: Introduction and bibliography*. *Psicothema*, 2(1), 97-107.
- Linn, R.L. eta Gronlund, N.E. (2000) *Measurement and assessment in teaching* (8th edition). Upper Saddle River, NJ: Prentice Hall.
- Nunnally, J.C. eta Bernstein, I.J. (1995): *Teoría Psicométrica*. McGraw-Hill. México.
- Martinez-Arias, R. (1995): *Psicometría: Teoría de los Tests psicológicos y educativos*. Síntesis. Madrid

Aldizkariak

- Anales de Psicología <http://www.um.es/analesps/>
- Papeles del Psicólogo <http://www.cop.es/papeles>
- Psicothema <http://www.psicothema.com/>
- RELIEVE: <https://www.uv.es/RELIEVE>
- Spanish Journal of Psychology: <http://revistas.ucm.es/index.php/SJOP>

Interneteko helbide interesgarriak

- American Psychological Association. <http://www.apa.org/>
- Asociación de Metodología de las Ciencias del Comportamiento. <http://www.aemcco.org/>
- Colegio Oficial De Psicólogos. [Http://www.cop.es](http://www.cop.es)
- International Test Commission. <http://www.intestcom.org/>

OHARRAK

Klaseetara etortzea legez derrigorrezkoa ez baldin bada ere, irakasgaia egunean eraman nahi bada, biziki gomendatzen da eskoletan parte-hartzea.